

AUTOEBALUAZIOA

Eskolako irratian bizimodu osasungarria izateko aholkuak azaldu aurretik, irakurri arretaz prestatu duzun dekalogoia, eta hausnartu puntu hauen inguruan:

Dekalogoko aholkuetan mezua argi uzteko behar den guztia azaldu duzu?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
Aholkuetan badago behar ez den informazioa, merezi ez duena?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
Informazioa ordenatzeko, ideiak gehitzeko, adibideak emateko... testu-antolatzaile egokiak erabili dituzu?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
Azalpenetan haria ez galtzeko, aipatutako ideiei erreferentzia egin diezu?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
Aholkuak emateko baliagarriak diren hizkuntza-baliabideak (maiztasun-adierazleak, ideiak kontrastatzeko eta gehitzeko lokailuak, baldintzazko perpausak, kausazko perpausak, denborazko perpausak, bihurkariak, agintera...) erabili dituzu?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>
Argi duzu zer-nolako tonua eman nahi diezun azalpenei (serioa, umoretsua...)?	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>

Beharrezkoa iruditzen bazaizu, egin itzazu egin beharreko aldaketak.

Prest al zaude irratsaioan osasunari buruzko aholkuak emateko? Aurrera!